

"KOSMODISEAK ESKAINTZEN DITUEN LAN EREDUA, ASKATASUNA ETA EKIMEN GAITASUNA BALORATZEN DITUGU"



Miguel Ángel Ugartemendia [AEG Ikasketa Zentroa | Zikloak]

Miguel Ángel Ugartemendia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak sustatutako Kosmodisea lehiaketako Ikono Planetan Zikloak kategorian lehen geratu den AEG Zentroko taldearen arduraduna da. Azaldu duenez, lehen postuan geratzeak poztasun handia eman die ikasleei. *"Bestalde, interesa ere piztu die hurrengo Planetan are hobeto egiteko, baina, AEG zentroan, zereginetan norberak esfortzu handia egin izana aitortzea ere sustatzen dugunez, kanpotik puntuazio bikain horiek lortu gabe ere, ikasleak oso harro daude lanarekin".*

- Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?
- Adostasuna lortzea izan da Ikono planetako lana egiterakoan zailena. Lehenik, pixkanaka produktu bilakatu den proiektuaren noranzkoaren inguruko adostasuna. Bigarrenik, erakutsi nahi zen irudi-ereduaren inguruko adostasuna.
- 2010-2011 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?
- Kosmodiseak eskaintzen dituen lan-eredua, askatasuna eta ekimen-gaitasuna asko baloratzen ditugu. Prestakuntza zuzendutik gainerako ikaskideekin partekatutako eredu autonomora pasatzen da eta, hori, ekimena hain aberasgarri izatearen gakoetako bat da.
- Eta zeintzuk dira jardura honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?
- Prestakuntza arautuaren exigentzia proiektuaren beharrek uztartzea. Batzuetan, zaila izaten da, baina tresnak emanez eta antolamendu-trebetasunak sustatuz, zailtasuna gaindi dezakegu.
- Nola ekingo diozue Kosmodisea 2010-2011 edizioko azken etapari?
- Hurrengo etapari gogo biziz ekingo diogu, ikasleek aukera ugari ikusten baitituzte bideoan proiektuaren eta izan ditzakeen ekarpenen nondik norakoak adierazteko.